

2019an Hego Euskal Herrian izandako laneko ezbeharren txostena

2020ko urtarrila

ELA • LAB • ESK • STEILAS • EHNE • HIRU

LAN-ISTRIPUEN KOPURUAK GORANTZ JARRAITZEN DU HEGO EUSKAL HERRIAN

Administrazio publikoek emandako azken datu ofizialek adierazten dute lan –ezbeharren kopuruak gora egin duela iazko urtearekin alderatuta. EAEn (azaroa bitarteko datuak) %2,3 igo da eta Nafarroan (iraila bitarteko datuak) %19,8. Azpikontratazio maila handia, behin-behinekotasuna eta lan baldintzen prekarietatea dira egoera hori eragiten duten faktore nagusiak. Era berean, Lan Ikuskaritzak ez du behar besteko irmotasunik enpresei egin beharreko eskakizunetan eta zigorretan, eta Osalanen eta INSPL-ren aldetik kontrol eta jarraipen eza agerikoa da laneko prebentzio eta segurtasun gaitan bete beharreko oinarriko neurriei dagokienean. Hori horrela den bitartean egoerari buelta ematerik ez dago.

EAEko DATU OFIZIALAK

(Iturria Osalan: abendua falta da)

EAEn urtarriletik azarora 78.183 lan istripu zenbatu dira, horietatik 42.250 (%54) bajarik gabeko lan istripuak izan dira eta 35.933 baja eragin duten lan istripuak, genion bezala, iaz baino %8,1 gehiago (gogoratu hilabete bat gutxiago dagoela zenbaketan).

Baja eragin duten istripuetatik 33.967 (94,5) arinak izan dira, 187 larritzat hartu dira eta istripuetatik 28 hilgarriak izan dira. Datuok aurreko urteko datuekin alderatuta, istripu arinak %8,4 igo dira eta istripu larriak zein hilgarriak %6 eta %20 jaitsi dira, hurrenez hurren.

Herrialdeka, Araban 6.382 lan istripu gertatu dira, in-itinere jazotakoak barne; Bizkaian 17.442 lan istripu izan dira eta Gipuzkoan 10.358 istripu. Araban eta Gipuzkoan datu orokorrak igo egin dira aurreko urtearekiko, istripu hilgarrien kasuan izan ezik, bietan aurreko urteko zenbaki bera errepikatu baita, 5 istripu hilgarri Araban eta 8 Gipuzkoan. Bizkaian lan istripuak jaitsi egin dira, batez ere istripu hilgarriei dagokienean, 2018an baino 8 gutxiagorekin.

In-itinere gertatutako istripuak 2019an igo egin dira Araban eta Gipuzkoan eta zertxobait jaitsi Bizkaian, gainerako istripuen joera mantenduz (abenduko datuen faltan, beti ere).

Lan istripuen inzidentzia indizeek (1.000 biztanleko lan istripu kopurua) behera egin dute hiru herrialdeetan, gizonei zein emakumei dagokienean, %7,8ko jaitsiera orokorra 2018ko datuekiko.

Laneko gaixotasunei dagokienean EAEn gaixotasun profesionalen 2.931 parte jakinarazi dira, Mutualitateek 100 kasuko 48 baja onartu zituzten, urteko azken hilabeteko datuen faltan, aurreko urtean baino %4,7 gutxiago. Baja eragindako laneko gaixotasun kopurua bere horretan mantentzen da, bajarik gabekoak zertxobait jaitsi egin diren bitartean.

DATU OFIZIALAK NAFARROAN

(Iturria INSPL: azken hiruhilekoaren faltan)

Nafarroan irailera bitarteko datu ofizialak argitaratu dira eta tarte horretan 19.657 lan istripu zenbatu dira, horietatik 9.179 izan dira bajarekin (%46) eta 10.478 bajarik gabe (%53). Istripu arin gisa hartu dira 19.563 kasu (%99,5), larritzat 81 istripu eta 13 istripu hilgarri izan dira. Aurreko urteko aldi berarekin parekatuta, %19,8 igo da lan istripu kopurua. Baja eragin duten lan istripu arinak %18,4 igo dira, baja eragin duten istripu larriek ere gorantz egin dute %44, eta hilgarriak 3 gehiago izan dira.

2019an inzidentzia indizea 0,71 puntu igo da 2018an garai bereko erreferentziarekiko, igoera hau industria sektoreari zor zaio.

Laneko gaixotasunei dagokienean, Nafarroan gaixotasun profesionalen 1.375 parte eman dira urtarriletik irailera, 2018an baino %17,7 gehiago. Gorantz egin dute bajarekin zein bajarik gabeko jakinarazpenek, gizonetan zein emakumeetan, baina azken hauen kasuan igoera are adierazgarriagoa da.

Laburbilduz...

Datu hauekin ondoriozta dezakegu 2019an, erregistro ofizialen arabera, lan istripuek gora egin dutela EAEn zein Nafarroan, iazko urtearekin alderatuz. EAEn arintzat hartutako istripuen gorakada nabarmentzen da, %8,4ko igoera (2.634), larriak eta hilgarriak jaitsi egin diren bitartean. Herrialdeka Araban zein Gipuzkoan laneko ezbeharren kopuruak gora egin du, hilgarriena salbu, aurreko urteko kopuru bera errepikatu baita bietan. Bizkaian, berriz, istripuen kopuru orokorra zertxobait jaitsi egin da (abenduko datuen zain), eta nabarmenagoa izan da istripu hilgarrien beherakada. Intzidentzia indizeak hiru lurraldeetan jaitsi dira, baita gaixotasun profesionalengatiko jakinarazpenak ere, bajarik gabeko gaixotasun profesionalak zertxobait jaitsi izanaren ondorioz.

Nafarroan istripu arinak, larriak eta hilgarriak zein laneko gaixotasunak, guztiak igo dira 2018koekiko. Inzidentzia indizeek ere goranzko joera izan dute.

Azken 5 urteetan EAEn eta Nafarroan erregistratutako lan istripu hilgarrien eta laneko gaixotasunen laburpen estatistikoa.

	2015		2016		2017		2018		2019	
Estatistika ofizialak	EAE	Nafarroa	EAE	Nafarroa	EAE	Nafarroa	EAE	Nafarroa	EAE	Nafarroa
Lan istripu hilgarriak	33	10	40	9	32	11	37	10	28	13
Gaixotasun profesionalak	2.610	1.552	2.741	1.580	3.101	1.420	3.278	1.557	2.931	1.375

Gehiengo sindikalaren datuak

2019an gehiengo sindikalak gutxienez 46lan istripu hilgarri zenbatu ditu HEHan, aurreko urtean baino 21 istripu gutxiago. Horietatik 16 Bizkaian gertatu dira, 9 Gipuzkoan, 6 Araban eta 15 Nafarroan. 2018ko datuekiko herrialde guztietan behera egin du hildakoen kopuruak, Araban izan ezik, non kopuru bera jaso den. Gipuzkoan bat gutxiago zenbatu da, Nafarroan 6 gutxiago eta Bizkaian gertatu da beherakadarik handiena, 14 hildako gutxiagorekin.

	2019	2018	2017	2016	2015
Araba	6	6	5	3	3
Gipuzkoa	9	10	16	8	12
Bizkaia	16	30	20	29	20
Nafarroa	15	21	14	13	17
Guztira	46	67	55	53	52

- Nolako istripu hilgarriak izan diren zehatzago aztertuz,
- %28 istripu hilgarri ez traumatikoak izan dira.
- %10 altueratik erortzearen ondorioz jazotako lan heriotzak.
- %28 in-itinere gertatutako istripu hilgarriak.
- %20 harrapaketatik edo kolpe bidez izaniko istripu hilgarriak.
- Istripua izandako langileen %28 azpikontratatuak ziren.

- Lan istripu hilgarri gehien industria sektorean jazo da, ezbehar kopuru orokorraren %41, ondoren zerbitzuen sektorea dago, hildakoen %28arekin. Nekazari bat hilda, eraikuntzako 3 langile, bi garraiolari eta etxeke langile bat.

Datuen irakurketa

1.-Lan istripuen zenbateko orokorra aintzat hartuta kopuruak goranzko joeran jarraitzen duela esan dezakegu, beraz, ondorioztatzen dugu lan osasunaren eta prebentzioaren egoera ez dela hobetu Hego Euskal Herriko lantokietan. Arrazoi nagusietako bat da kalitate eskaseko enplegua, prekarietatearen ondorio zuzena dena. Prekarietatea ezarri da enpresetan azpikontratazioarekin, lan erritmo handiak tarteko, bitarteko tekniko eta humanoetan inbertsio nahikorik egiten ez delako, edota informazio nahiz formazio eskasiagatik. Prekarietatea da lan istripuen eta laneko gaixotasunen arrazoi nagusia.

2.-EAEen zein Nafarroan gertatzen diren lan istripu eta gaixotasun asko eta asko estatistika ofizialetan jaso gabe geratzen dira. Istripu hilgarrien kasuan 2019an gehiengo sindikalak jasotako datuekiko erregistro ofizialetan %39 gutxiago bildu ziren, alegia, 18 heriotz istripu hilgarri ez dira zenbatuak izan. Pentsatzekoa da istripu larriei eta arinei dagokienean antzekoa gertatzen dela. Beraz, asko dira estatistika ofizialetan agertzen ez diren lan istripuak.

3.-Bestalde, lan istripuak lesioaren larritasunaren arabera sailkatzen dira, nahiz horretarako definizio legal eta teknikorik izan ez. 2019an arintzat sailkatutako istripuak EAEko istripu guztien %94,5 ordezkatzeko dute, Nafarroan %99,5. Azken 5 urteetako joerak erakusten digu istripu arinak etengabe eta nabarmen gora doazela. Arriskuei garrantzia kentzen zaiela ikusten dugu eta mutualitateek gero eta garrantzia gutxiago aitortzen die haien larritasunari. Gisa horretara, enpresek ekidin egiten dute Lan Ikuskaritzak istripuak aztertzea eta ondorioz, istripua berriro gerta ez dadin dagozkion neurriak hartzeari uko egiten zaio. Azterketa gutxi egin da horren inguruan, baina egindakoetatik ondoriozta daiteke da istripu larrien kasuan, gertatutakoak baino 3,5 -15 (tarteetan) aldiz istripu gutxiago deklaratuak dela.

Konparaketa, iturri ofizialek eta gehiengo sindikalak lan istripu hilgarrietan erregistratutako datuak

	2019		2018	
	Gehiengo sindikala	Datu ofizialak	Gehiengo sindikala	Datu ofizialak
Araba	6	6	6	6
Gipuzkoa	9	10	10	9
Bizkaia	16	12	30	22
Nafarroa	15	13	21	10
Guztira	46	28	67	47

Bestelako kontua da laneko gaixotasunen erregistroa. Inondik inora ez du benetan gertatzen dena erakusten, asko ez baitira aitortzen edo lan istripuekin gertatzen den bezala, mutualitateek patologien jatorria (lanekoa) ukatzen baitute eta ondorioz, osasun sistema publikora bideratzen dituzte, gaixotasun arruntak bailiran. Aitortuak izan beharko luketen eta ez diren gaixotasunen kopurua eskandalagarria da. Hala eta guztiz ere, laneko gaixotasunen jakinarazpenak azken urteetan etengabe gorantz ari dira egiten, bereziki emakumeen artean. Datu horrek lana sexuaren arabera banatzen dela baieztatzen du, emakumeen gaixotasun gehienek lotura dutelarik trastorno muskuloeskeletikoekin, sektore feminizatuetan ematen den trastorno mota, hain zuzen ere. Edonola ere haien aitortza falta salatzen jarraitu behar dugu.

Laneko gaixotasunek ikusezinak izaten jarraitzen dute, ahaztuak daude. Hala, laneko osasun eta segurtasunerako Europako Agentziaren arabera, lan istripuan hildako langile bakoitzeko 35 langile hiltzen dira gaixotasun profesionalen ondorioz (Hego Euskal Herrian $46 \times 35 = 1.610$ hildako izango lirateke). Alta, laneko gaixotasunen estatistika ofizialek ez dute heriotz bakar bat ere aitortzen, ezta amiantoagatik hildakoak bakarrik kontatuta honako emaitza izanda ere: Azken 10 urtean EAEn 276 pertsona hil dira, 31 pertsona 2019 eta 2020an gaurdaino jada badira 3 pertsona amiantoaren ondorioz hildakoak.

Datu ofizialak aintzat hartuta bakarrik, EAEn egunero 234 pertsonen dute lan istripuren bat edo laneko gaixotasunen bat, Nafarroan 77 lagun dira. Datuak larritzeko modukoak badira ere, errealitate oso urrun daude, asko ez daudelako erregistratuta (istripu arinak, in-itinere, etxeko langileen istripuak, kooperatibistak, garraiolariak...) eta beste datu asko, erregistratuak izan ez daitezten, enpresek, mutualitateen laguntzarekin, gorde edo ezkutatu egiten dituzte eta gizarte segurantzara bideratu, laneko istripu edo gaixotasunak izango ez balira bezala. Hala, gertatutakoa ikertua izatea ekiditen dute, haien erantzukizuna baztertu eta zigor ekonomikoak eragotziz. Arrisku psikosozialekin lotutako kasuetan praktika hori oso ohikoa da, enpresek, barne protokoloak aplikatuz, epailearena eta borrareroarena egiten dute eta langileen osasunerako hain kaltegarria den arazo hori ezkutatu.

Enpresek egun lan osasunean eta laneko segurtasunean neurriak ezartzeko eskura dituzten teknologiak eta bitartekoak aintzat hartuta, aipatutako kopuruak guztiz onartezinak dira.

4.- Gasteizko eta Nafarroako gobernuek jarraitzen dute langileen segurtasuna eta osasuna serio hartu gabe, laneko osasunari buruz mintzo dira baina prekarietatea eragiten duten politikak sustatzen dituzte. Arlo horretan, ez dute euren politiken norabidea aldatu, ez behar kopuru handiaren gaitz soziala desagerrarazteko eraginkorrak eta nahikoak ez direla jada argi geratu den arren. Bai EAEn, bai Nafarroan, prebentzioa xede duen aurrekontu orokorretako gastu publikoak (Osalan eta INSPL) berdin jarraitzen du azken urteetan eta % 0,1 baino baxuagoa da, hau da, ez da nahikoa.

Bestalde, administrazioan baliabide teknikoak eta giza-baliabideak falta dira, prebentzioari buruzko araudia kontrolatzeko eta betetzearen jarraipena egin ahal izateko. Arlo horretako teknikari eta ikuskatzaile gehiago behar dira baina ekintza horiek patronalaren interesen aurkakoak dira, patronala eroso baitago egungo sistemarekin. Hori gutxi balitz, adierazi dute prebentzioak ahalegin ekonomiko handiegia eta izapide burokratiko gehiegi dakartzala eta horrek mugak ezartzen dizkiola lehiakortasunari.

5.- Lan merkatuaren prekarizazioa dela eta, lanaren ondoriozko minbiziak, amiantoari eta silikosiari lotutako kasuak eta, kopuruagatik bereziki, arrisku psikosozialei lotutako kasuak gero eta gehiago dira. Langileen buruko osasuna okerrera doa, exijentzia maila gero eta altuagoa baita eta babes gero eta txikiagoa.

Horregatik guztiagatik, urtarrilaren 30ean Greba Orokorra. Lan osasunean ere arrazoiak badaude!

Urtarrilaren 30eko greban honako hauek aldarrikatzen ditugu: pobrezia deuseztatzea, azken lan erreformak indargabetzea, pentsio duinak bermatzea, DSBE eta etxebizitzarako eskubidea babestea, emakumeek pairatzen duten soldata-arrakala desagerraraztea eta laneko segurtasuna eta osasuna hobetzea, besteak beste. Lan harremanen eredu propioa erabaki ahal izatea, baita negoziazio kolektiborako berezko esparrua ere, lan istripuak eta gaixotasun profesionalak deuseztatzea zuzendua. Horrela, enpleguaren kalitatea argi eta garbi hobetuko litzateke eta, oro har, Hego Euskal Herriko langileen baldintzak hobetuko lirateke eta laneko prekarietatea desagertuko litzateke.

- Horretarako, EAEko eta Nafarroako erakundeei eskatu behar diegu, ardurak gain hartu ditzaten eta bide horretan aurrera egiteko beharrezkoak diren neurriak har ditzaten honelako ekintzen bitartez:

- Babeserako esparru propioa sortzea, Gizarte Segurantzaren transferentzia barne, babes sozialerako sistema publikoa garatzeko xedearekin, mutuen esku-sartzerik gabe, laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen deklarazioan egon ohi diren iruzurrekin amaitzeko.

- Osalan / ISPLNko eta Laneko Ikuskaritzako langileen parekatzea Europako batez bestekoa aintzat hartuta, une honetan % 60 baino baxuagoa da.

- Laneko segurtasun eta osasunaren arloko politika publikoei zuzendutako aurrekontu-esleipena handitzea, une honetan ia ez dago eta. Hala, herri-administrazioaren hainbat sailerako gutxieneko diru-kopurua ezarri beharko litzateke.

Erortzeko edo harrapatuta geratzeko arriskua duten jarduerak barne hartzen dituzten enpresetan, kontrol eta jarraipen ekintza gehiago gauzatzea eta erregistroak egitea, baita elementu kantzerigeno, mutageno, toxiko eta psikosozialekin lan egiten dutenen kasuan ere. Halaber, horri buruzko araudiaren betetzea egiaztatu behar da, horiekin lan egiten duten langileen erregistroa egin eta lanaren osteko zaintza ziurtatu.

Istripu larriak eta hildakoak eragin dituzten istripuak izan dituzten enpresen erregistroa urtero egitea eta jendaurrean zabaltzea, baita arrazoen eta arduren ikerketa gauzatzea ere, hori egiteko epe egokiak ezarriz.

- EAEko eta Nafarroako bide-sareko puntu beltzak deuseztatzeako erregistroak eta ekintzak.

- EAEn amiantoaren desagerrarazteko plana idaztea, Nafarroako Parlamentuak hala eskatuta egin zenaren ildo berean, erreserba funtsak sortzea aurreikusten duena. EAEko eta Nafarroako amiantoaren biktimentzako konpentsazio funtsa sortzea.

- Kontratazio publikoan bi azpikontratazio maila baino gehiago debekatzea eta parte hartuko duten enpresek laneko segurtasun eta osasunaren arloko lan-agintaritzak formalizatutako errekerimenduak betetzen dituztela ziurtatzea.

- Kontratazio publikoko agirietan, segurtasunaren eta osasunaren arloan enpresek egin beharreko gutxieneko inbertsioei buruzko baldintzak gaineratuko dira, baita sindikatuen ordezkariak erabakiak hartzeko duen ahalmenari buruzkoak ere, prebentzio neurriei eta segurtasun planak egiteari eta modu eraginkorrean aplikatzeari dagokionez.

- Nafarroan ezustekoak jakinarazteko sarearen antzerako sistema ezartzea EAEn, laneko gaixotasunen azpi-deklarazioa murrizteko asmoarekin.

